



2023-27ko agintaldia:

Astigarragako Udalbatza berria eratu da eta Xabier Urdangarinek errepikatuko du alkatetza

ELKARRIZKETA

Astigarragako Gazte Asanbladak 30 urte bete ditu aurten

6

ELKARRIZKETA

Xabier Urdangarin: "Pozik eta prest gaude, lanean jarraitzeko eta Astigarraga hobetzeko"

9

Iritzia

Agintaldi berria, erronkak.

11

Ibai-parkea handitzeko eta gune berriak sortzeko proiektua martxan da

Ibai parkea handitzeko proiektuaren kostu totala 615.432,77 eurokoa da eta URAk 184.629,83 euro jarriko ditu.

Astigarragako biztanleria asko hazi da azken urteotan eta horrekin aisialdirako eremuak handitzearen beharra. Udala horren jakitun da eta ahalegin handia egiten ari da eremu berri horiek sortu eta egokitzeko, horren adibide da, ibai parkea.



Herritarrek ibai parkean interesa dutela ere ikusi da. Izan ere, 2020ko eta 2021eko aurrekontu parte-hartzaileetan herritarrek gehien bozkatu duten aukera ibai-parkea izan da. 2020an, ibai-parkea berritzeko proposamenak irabazi zuen eta 2021ean, ibai-parkea handitzeko proposamenak. Lan hauek guztiak dagoeneko martxan daude.

IBAI-PARKEA HANDITZEKO URRATSAK

Udala ibai-parkea handitzeko urratsak egiten hasi da, 615.432,77 euroko aurrekontua duena. Handitze-proiektu honen barruan, egingo diren ekintza nagusiak lurraz erostea, erreka-eremuaren ibilgua desbideratzea eta oinezkoen bideak dira.

Handitze lan horiek egiteko beharrezko lursail gehienak dagoeneko eskuratu ditu Udalak eta horiek guztiak erosita jarriko da martxan lehiaketa. Proiektuak jada eraikita dagoen ibai-parkearen obra berberak errepikatzea aurreikusten du, ibaiaren ondoan behe-plataforma bat sortuz eta gorago bide batzuk eraikiz, bankuak eta paperontziak ere jarri. Hori lortzeko erreka-eremua desbideratu behar da. URA ur agentziak ere oniritzia eman dio proiektuari eta Udalak 184.629,83 euroko diru-laguntza jasoko du, horretarako hitzarmena sinatu berri dute. Horrela, behin lan guztiak amaituta, ibai-parkearen ibilbidea Bidebitarte poligonoaren amaieraraino luzatzea lortuko da.

HERRITARRENTZAKO AISIALDIRAKO GUNEA

Ibai-parkea, 2019ko urrian zabaltzen zenetik, herritarrentzako aisialdirako gune bihurtu da, besteak beste, paseatzeko, irakurtzeko, ariketa fisikoak egiteko eta haurrak jolasteko. Parkeak hainbat eremu ditu: belardiak, urmaela, ibai-ertzeko eremua, mahaien zonaldea, harmaila eta eszenatoki moduko bat eta oinezkoentzako ibilbide eta bidezidor-sarea.

Parkearen proiektuarekin helburu zehatz batzuk bete ziren, hala nola, garapen urbanistikoa definitzea, uholdeen aurkako esku-hartzea garatzea, aisia sustatzea eta ibaiaren habitat naturala lehenestea. Horrekin batera, biztanleen beharrak asetzeko asmoz, proposatutako hainbat erabilera berri 2019an bertan garatu ziren, beste batzuk garapen prozesuan daude eta besteak oraingo proiektuaren bidez gauzatuko dira. Hala, proiektu honen helburu nagusia parkea belaraldi ezberdinek goza dezaten beharrezkoak diren obra zibileko lanak eta jolas-eremuen horniketa lanak gauzatzea da.

Berritze honen barruan, aisialdirako eta jolaserako gune ezberdinak jarriko dira. Eta horretarako, ibai parkea handitzeko erabiliko diren 615.432,77 euroez gain, Udalak beste 270.472,89 euro bideratuko ditu. Besteak beste, jolas-parkea, kalistenia gunea, adinekoentzako makinak eta ur-eremua egokituko dira. Lan hauek 16 asteko epean gauzatuko dira eta horiekin batera, ibai-parkeko argiteria ere hobetuko da, maila ertainean dauden bideetan farolak jarri. Azken honek 68.283,38 euroko aurrekontua du.

Horrekin guztiarekin, ibai-parkea erabilera anitzeko gune bihurtuko da, adin guztietako pertsonen arreta emango diena, eta, gainera, herriaren bitartekari lotuko dituen ingurune naturala izango da.

Parkeak izango dituen gune berriak:

- **Trebatze-gunea.** Haur eta gazte-txoei bideratutako trebatze-gunea. Kota aldaketa baliatuz, txirristak eta igoera elementu anitzak kokatuko dira: sokak, enborrak, harriak, sareak, igoera plataformak... Bilgunearen harmailarekin bat egingo dute, harmaila bera gora eta behera ibiltzeko zirkuituan txertatuz.
- **Tirolina.** Trebatze gunearen osagarri bezala, beherago tirolina bat ere jarriko da. Tirolinaren funtzionamendu egokia bermatzeko belardiaren orografia moldatuko da, mendixkaren bat sortuz.
- **Elkargunea.** Egungo urmaelaren ondoan elkargune txiki bat sortuko da, uraren freskotasunaz gozatu ahal izateko. Hau ez da jolas eremu bat izango, egoteko gune bat baizik.
- **Ariketa-gunea.** Egungo oinezko bi-deetan agertuko dira ariketa fisikora-ko guneak. Bi motatakoak izango dira:
 - Kalistenia gunea. Goiko plataformaren hegoaldean kokatuko da,
- kale kotan. Intentsitate altuko ariketa fisikoa egiteko bideratutako eremua izango da. Hareatzan kokatuko da.
- Makina gunea. Adin nagusikoei bideratutako ariketa fisikoa egiteko hainbat makina kokatuko dira, hiru eremu irisgarrietan sakabanatuta.
- **Ur-eremua.** Urarekin jolastu eta ikeritzeko gunea izango da, ur txorrotak eta iturria izango dituena. Gaur egun existitzen den zoladura gogorreko eremua aprobetxatuko da ur txorroten instalazioa egiteko. Alde bate-tik, lau ur txorrota kokatuko dira; eta bestetik, iturri bat bere askarekin, gaur egungo iturria ordezkatzuz. Askak hurrei ura manipulatzeko aukera emango die, bere ur-pistolak betetzeko, edota urarekin esperimintatzeko.
- **Txakurrentzako gunea.** Txakurrak aske egon ahal izateko hormigoizko plataforma bat egingo da iturri batekin, paperontzi batekin eta bankuekin. Gainera, inguruko belardia inguratuko da.

El proyecto de ampliación del parque fluvial y creación de nuevos espacios ya está en marcha

El coste total del proyecto de ampliación del parque fluvial es de 615.432,77 euros y URA aportará 184.629,83 euros.

La población de Astigarraga ha crecido mucho en los últimos años y con ello la necesidad de ampliar las zonas de ocio. El Ayuntamiento es consciente de ello y está haciendo un gran esfuerzo para crear y acondicionar estas nuevas zonas, ejemplo de ello es el parque fluvial.

También se ha visto que la ciudadanía está interesada en el parque fluvial. De hecho, la opción más votada en los presupuestos participativos de 2020 y 2021 ha sido el parque fluvial. En 2020 ganó la propuesta de su renovación y en 2021 la propuesta de su ampliación. Todos estos trabajos ya están en marcha.

Por un lado, el Ayuntamiento ha comenzado a dar pasos para la ampliación del parque, que cuenta con un presupuesto de 615.432,77 euros. Las principales acciones que se van a llevar a cabo son la compra de terrenos, el desvío del cauce del arroyuelo y los caminos peatonales.

Por otro lado, como parte de la renovación del parque, se habilitarán zonas de ocio. Y para ello, además de los 615.432,77 euros que se destinarán a la ampliación del parque fluvial, el Ayuntamiento destinará otros 270.472,89 euros. Entre otros, se acondicionará el parque de atracciones, la zona de calistenia, la maquinaria para mayores y la zona de agua.



1 Ya está en marcha el Servicio de Orientación Deportiva (KOZ)

Para impulsar la práctica regular de actividad física el ayuntamiento ha creado el Servicio de Orientación Deportiva. Un servicio dirigido a la ciudadanía que realizan poca actividad física. A través del mismo, una persona orientadora le propondrá un programa de actividad física que se adapte mejor a las posibilidades, necesidades y prioridades de la persona usuaria y realizará un seguimiento del grado de cumplimiento de los objetivos establecidos conjuntamente.

El proyecto se enmarca dentro del programa Astigarraga AktIBATUZ y tiene como fin que la ciudadanía realice actividad física, tenga una vida más activa y saludable, y crear una red local que lo impulse. Desde el 3 de marzo, los datos hasta el momento son los siguientes:

- El ambulatorio ha derivado al servicio a 18 personas. De éstas, 17 han venido a utilizar el servicio. Además, un usuario ha venido al servicio por iniciativa propia (sin derivación médica).
- En total, se han realizado 32 citas presenciales y 10 llamadas telefónicas.
- De las personas usuarias, el 26,30% han sido mujeres y el 76,70% hombres.
- En cuanto a la edad, el menor tenía 42 años y el mayor 77. La edad media ha sido de 60,5.

Horario	Lunes, martes y viernes de 11:00 a 13:00 horas en el ambulatorio de Astigarraga
Teléfono	943335644 (ambulatorio) y 747482732 (servicio de orientación)
Email	kirolorientatzailea@astigarraga.eus

*también se puede solicitar el volante de cita previa en el ambulatorio.



1

2 Murgiaiko jolasgune berria zabalik da

Jolasgunea osatzeko inguruko elementu naturalak erabili dira, haurrei zuzendutako trebatze eta esperimentazio-gunea sortuz.

Eremu ezberdinak sortu dira jolasgunearen barruan: hondarlekua; oreka-gunea, non sareak, enborrak, harriak eta sokak jarri diren; trebatzeko eremua malda erabiliaz eta maldaren goiko aldean elkargunea tipi batekin.

Jolasgunea hau 2021ean Herri Eskolako haurrekin eta Gaztelekuko nerabeekin egindako "Jolastuko al gara" partaidetza prozesuan ateratako emaitzetan oinarritzen da.



3

3 El Ayuntamiento ha instalado 135 módulos fotovoltaicos en el polideportivo y 69 en Erribera Kulturgunea

El Ayuntamiento de Astigarraga, apostando por las energías renovables, ha comenzado a instalar placas fotovoltaicas en varios edificios municipales. De esta forma, junto con el avance en la sostenibilidad energética, el ayuntamiento pretende satisfacer parte de las necesidades energéticas de los edificios públicos municipales a través del autoconsumo.

Por el momento se han realizado dos instalaciones. La primera en el polideportivo municipal, donde se han instalado 135 módulos. La instalación producirá anualmente 74.000KWh y la energía generada se destinará al consumo comunitario. Además, estas placas evitarán la emisión de 18500 kg anuales de CO² a la atmósfera, equivalente a la plantación anual de 107 nuevos árboles. La segunda instalación es la de Erribera Kulturgunea, donde se han instalado 69 módulos y la energía que se generará se destinará al autoconsumo colectivo. El coste total de las instalaciones ha sido de 87.592,28 euros.



2





4

4 Larrabide “Baserri bizia”k merezitako esker ona jaso du San Isidro egunean

Herriko baserritarrei aitortza egiteko helburuarekin, Astigarragako Udalak San Isidro eguna ospatzeko ohitura izan du betidanik eta aurten ere ekintza eta ikuskizun ugari izan dira.

Iaz, Udalak, Goldea eta Baratzte tokiko elkarteekin batera abiatutako LURRALDIA jardunaldiei jarraipena emateko maiatzaren 8an hasi eta San Isidro egunera arte luzatu diren jardunaldiak ospatu dira. Azken egun honetan, San Isidro egunean, Larrabide “Baserri bizia” omendua izan zen eta bere baserriko produktuen erakusketa egon zen.

Udalak baserritarrek lan egiten du urte osoan, baserritarren mahaiaren bitartez. Eta lan horri esker, besteak beste, aurten lehen aldiz baserritarrei zuzendutako diru-laguntzen deialdia egin da. Deialdi honi esker, baserritarrek baserrian eguzki-plakak jartzeko, egitura hobetzeko edo pentsuaren kostua handitzeko laguntza jaso dezakete, besteak beste.

5 Udalak landa eremuko hainbat bideetan egokitzapenak eta hobekuntzak egin ditu

Mendiola, Etxekuene, Larrabide eta Guardi baserrien artean eta Manixene bidean, besteak beste.

Mendiola inguruan egokitzapen ugari egin dira, egoera txarrean zeuden elementuak berritu dira eta ingurua txukundu da. Bestetik, Txoritokietako bidean, hilerritik gora ezkerretara, lurrezko ubide bat dago. Ezkerretik eskuinera errepidea zeharkatzen duen hormigoizko hodi bat zegoen, urak bideratzen zituena. Baina hodiaren diametroa nahikoa ez zenez, urak gainezka egiten zuten. Horregatik, funtzio bera duen hodi handiago bat sartu da.

Larrabide eta Guardi baserrien artean, errepidea zartzatzen ari zen. Udala eremua aztertzeraz joan zenean, bertako eskoilera ezegonkortzen ari zela ikusi zuten. Hori dela eta, egindako konponketa, alde batetik, eskoilera berria egitea izan da eta, bestetik, errepidea berriro asfaltatzea.

Azkenik, Manixene bidean, eskoilera berri bat egin behar da eta errepidea berriz asfaltatu. Bestalde, urak ondo bideratzeko bide bat eraikitzea aurreikusten da.



5



6

6 Las obras del local de la Brigada Municipal comenzarán en otoño

El Ayuntamiento adquirió cuatro locales en Troia ibilbidea con el objetivo de trasladar ahí la Brigada Municipal para ofrecerles un espacio mejor y, de paso, dejar libre el espacio del polideportivo. El procedimiento de adjudicación para llevar a cabo el acondicionamiento de estos locales ya está en marcha y se prevé que las obras comiencen en otoño.

Tres de los cuatro locales están unidos. De esos tres, dos locales se unirán totalmente derribando el muro que los separa, y se construirá una planta central. La Brigada Municipal desarrollará su actividad en los locales agrupados, donde se almacenarán sus vehículos y se almacenarán diferentes materiales y enseres.

El presupuesto es de 824.191,03 euros y el plazo de ejecución de 10 meses.

7 Gerra Zibileko biktimen dokumentazioa eskatzeko aukera

Aranzadi Zientzia Elkarteak, Gogora Institutuarekin batera, Gerra Zibileko biktimei buruzko ikerketa-lanetan dabil azken urte hauetan. Aranzadi Elkarteak Gerra Zibileko biktimen inguruko informazioa bilduta du eta eskuragarri jarri du biktima horien senideek jaso dezaten.

Maidar Urretabizkaia astigartarra 2018an hasi zen Aranzadi Zientzia Elkartearen lanean. Zehazki, Gerra Zibileko biktimei buruzko ikerketa-lanetan aritzen da eta jendea-ri euren senideek gerran jasandako errepresioari buruzko informazioa lortzen laguntzen dio.

Maddalen Laburu historialariak gerra zibila eta frankismo garaiko Astigarragako biktimei buruzko ikerketa-lana burutu zuen eta ikerketa-lan hori izan da hain zuzen ere, “Orri zuriak betetzen” dokumentalaren abiapuntua.

Maidarrek Aranzadin Gerra Zibileko biktima astigartar ugariren dokumentazioa bildu zuen eta, horregatik, Udalak Gerra Zibilean hildako, desagertutako edota preso egondako senideei buruzko dokumentazioa eskatzera animatu nahi ditu astigartarrak..

Kontaktua: Aranzadiko Antropologia Saila 943466142 / gz@aranzadi.eus.



7

“Asanblada hiltzen uzten badugu, agur. Astigarragan ez dago beste ezer gazteentzat”

Astigarragako Gazte Asanbladak 30 urte bete ditu aurten egoera larrian. Aurtengo Santio jaien txupinazoa botatzeko arduradunak izango dira eta momentua aprobetxatuko dute “taldearen egoera herriaren aurrean ikustarazteko”.



Zuriñe (22) eta Eider (24) Astigarragako Gazte Asanbladan sartu ziren duela 6 urte. Jaiak antolatzeko bilera batera joan ziren eta geroztik Asanbladako kide bihurtu ziren. “Ezin dugu Asanblada uztea planteatu, nork egingo du bestela?” dio Eiderrek. “Ez dugu herrian erreleborik ikusten eta horrek kezkatu egiten gaitu”, esaten du Zuriñek.

Zein ekintza antolatzen dituzue Asanbladatik?

EIDER: Ekintza desberdinak antolatzen ditugu, batzuk nahiko finkoak dira urtean zehar eta beste batzuk aldatzen goaz: hitzaldiak, gazte txotxa, gazte sortzaileen azoka, kontzertuak, zine foruma, mahai inguruak, Santio jaietako txosnagunea, pala txapelketa mistoa, Upeleto Eguna...

ZURIÑE: Ezagunena jaietako txosnagunea da, baina gauza gehiago egiten ditugu, bai. Ez dugu aurrekontu handirik, baina hori alde batetik ondo dago suposatzen duelako beste motatako jendea ekarri behar dugula: ingurukoak, hain ezagunak ez direnak, hazten ari direnak, hain komertzialak ez direnak...

Zenbat lagun zabilzate orain Asanbladan?

EIDER: Zazpi pertsona gaude orain, sei neska eta mutil bat. Zaharrenak 27 urte ditu eta gazteenak 22. Gazteenak 16 urte zituztela sartu ziren, eta orain

Ezkerretik hasita goiko ilaran: Endika (azken urtetan AGAko soinu teknikaria), Amaiur (AGAkoa aurreko urtean), Haizea (AGAkoa), Eneko, June, Zuriñe (AGAkoa) eta Joseba (AGAkoa). Ezkerretik hasita beheko ilaran: Garoa (AGAkoa), Eider (AGAkoa), Uxue (AGAkoa), Eider (AGAkoa) eta Jokin.

ez dugu inor adin horietan. Hor ikusten dugu arazoa, momentu batean edo bestean utzi egingo dugulako taldea. Eta ez bada jende gehiago sartzen, in dar eta ideia berriekin, iritsiko da momentua non Asanblada hil egingo den.

ZURIÑE: Nahiko zaila egiten zaigu gauzak aurrera eramatea hain gutxi izanda. Orain dela gutxi bilera irekia egin genuen jaietara begira eta jende berria etorri zuten laguntzeko prest, baina beldur gara jaiak amaitutakoan ez bueltatzea.

Zergatik da garrantzitsua gazte asanblada bat egotea herri batean?

ZURIÑE: Niretzat gazte asanblada baten eginkizuna gazteei zuzendutako mota guztietako ekintzak antolatzea da. Berez Udalek herri guztiari bideratutako ekintzak egiten dituzte, talde feministek emakumeei bideratuak... Gazteak oso ahaztuta gaudela uste dut eta badugu zer esan.

EIDER: Askotan esaten da gazteek ez dugula ezer egiten, ba batzuek bai.

Nire ustez garrantzitsua da herri mailan gazteen iritzia entzutea, eta horretarako gazteek hitz egin behar dugu. Eta hori talde baten barruan egitea askoz errazagoa eta eraginkorra da. Indarra egiteko beste eragile bat da.

Zer esango zenieke Astigarragako gazteei Asanbladaren parte izateko?

ZURIÑE: Ulertzen dut errespetu pixka bat ematea hasieran, baina azkenean Astigarragako jendea gara eta seguru nonbait gurekin bar egin duzuela. Etorri eta ikusi nola funtzionatzen duten gauzak, oso jende normala gara eta!

EIDER: Eta ez dugula ere bizitzako konpromisoa eskatzen. Askok baloratzen dugu bakoitzaren denbora eta momentua. Taldeko norbaitek ezin badu bilera batera edo bestera etorri, ulertzen da. Guk oraintxe bertan jendea etortzearekin eta ideia berriak ekartzearekin nahikoa dugu.

Zein da zuen oroitzapenik onena Asanbladan?

ZURIÑE: Hoberena beti hasierak izan ohi dira. Presio gutxien daukazun urtea, gehien disfrutatzen duzuna... Nire lehenengo jaien oso oroitzapen ona daukat.

EIDER: Aurtengo festak antolakuntza aldetik desastre bat izan ziren. Lehenengo egunean aste osorako alkohol probisioen erdia baino gehiago agortu zitzaigun. Gazte egunerako ez genituen ia basorik, ez gelik... Baina herriko tabernen eta jendearen laguntzari esker egunak salbatzen joan ginen. Jaien azken egunean, dena jaso ondoren, jendeak zoriondu gintuen eta oso pozgarria izan zen.

2023ari begira desio bat?

ZURIÑE: Espazio bat materiala gordetzeko eta gu biltzeko. Ez da guretzat bakarrik izan behar, herriko beste eragileekin partekatzea izan daiteke ere.

EIDER: Jende berria sartzea!

Plan Orokor berria (HAPO)

Datozen urteetako Astigarraga irudikatzen duen Plan Orokor berriaren aurrerakinari ekarpenak egiteko deialdia egiten die udalak herritarrei.



Aurrerakin
dokumentura
esteka

Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) 10-15 urte barruko Astigarraga irudikatzen duen dokumentu urbanistikoa da, herriaren bilakaera aztertu eta erabakitzea helburu duena. Bertan, besteak beste, herriak zenbat etxebizitza, zein ekipamendu publiko edo nolako berdeguneak izango dituen zehazten dira.

Orain indarrean dagoen 2009ko Plan Orokorra berrikustea erabaki du udalak eta horretarako, diziplina anitzeko idazle talde bat kontratatu du.

Dagoeneko diagnosi fasea amaitu da eta aurrerakinaren faseari heldu zaio. Aurrerakinaren dokumentua idazle taldeak landutako proposamena da. Dokumentu hau jendaurrean ipini du udalak herritar, elkarte, enpresari edota alderdi politikoei euren ekarpen eta proposamenak egin ditzaten.

Aurrerakinaren dokumentuak eragin juridikorik ez duen arren, Plan Orokor berriaren lehen oinarriak islatzen saiatzen da; horregatik, garrantzitsua da herritarren nahiak eta beharrak jasoko dituen dokumentu hau ahalik eta osatuena izatea.

Horretarako, Plan Orokorren berrikuspenaren hasieratik egin den bezala, udalak aurrerakinaren dokumentua herritarrekin partekatu du eta bost saio egin dira auzoka, 100 pertsona baino gehiagoko parte-hartzearekin.

Dokumentu osoa udalaren webgunean dago eskuragarri eta udalak herritar guztiak gonbidatzen ditu dokumentua kontsultatzera eta ahalik eta ekarpen eta proposamen gehien egitera. Horretarako azken eguna uztailaren 14a da.

Udal gobernuaren asmoa, besteak beste, hurrengo 10-15 urteetarako hazkundea 350 etxe ingurura muga-tzea; bertako bizilagunei bizitegi duina bermatuz, Ergobiako plazaren identitateari eustea; auzoetan ekipamenduak areagotzea; anbulategi berria Urumea Berrin kokatzea; adineko erresidentzia Murgian aurreikustea; eta Urumearen alboan eta Hernaniraino, oinezko zein bizikletentzako eratzun berdea egokitzea da. Horretarako, udal gobernuak ekarpenak aurkeztuko dizkio aurrerakinaren agiriari.

El ayuntamiento invita al vecindario a completar el avance del nuevo Plan General

El Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) es un documento urbanístico que representa a Astigarraga dentro de 10-15 años, cuyo objetivo es analizar y decidir la evolución del municipio. En el documento se detalla, entre otras cosas, cuántas viviendas deben hacer o qué equipamientos públicos o tipo de zonas verdes necesita la localidad.

El ayuntamiento ha decidido revisar el Plan General de 2009 que está actualmente en vigor y para ello, invita a la ciudadanía a consultar el documento avance del nuevo Plan General y a realizar el mayor número de aportaciones y propuestas. El último día para hacerlo es el 14 de julio.

Ekainaren 17an Udalbatza berria eratu eta, aurreikusi bezala, alkate Xabier Urdangarin hautatu dute.

13 zinegotzi ditu udalbatza berriak: 8 EH Bildukoak, 4 EAJkoak eta 1 PSEkoa.



Xabier Urdangarin Astigarragako Udaleko alkate izendatu dute ekainaren 17ko eratze-bilkuran, maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan gehiengo osoa lortu ondoren. EH Bilduk 1703 boto lortu zituen (botoen % 51,68) eta 8 zinegotzi (aurreko agintaldian baino bat gehiago). EAJk, berriz, 986 boto lortu zituen (%29,95) eta 4 zinegotzi (aurrekoan baino bat gutxiago) eta PSEk 274 boto (%8,32) eta zinegotzi 1.

Korporazioa 13 zinegotzik osatzen dute. Horietatik 6 aurreko agintaldian aritutakoak dira eta 7 berriak.

Eratzeko bilkuraren ondoren, beste pleno bat egingo dute, uztailaren 4an, antolamenduaren inguruko erabakiak harzteko (bilkuran maiztasuna, batzordeak, izendapenak, beste erakundeetako ordezkariak, eskuordetzeak, lanaldiak...). Hori egin ondoren, udaleko aginte organoak martxan hasiko dira, ohiko moduan.

*Ezkerretik eskuinera:
Joseba Illari Etxeberria,
Bea Lasagabaster,
Andoni Gartzia,
Esti Neira,
Aitor Güemes,
Naroa del Orden,
Xabier Urdangarin,
Ainara Vazquez,
Patxi Suarez,
Maria Otaegi,
Iñigo Touzani,
Olaia Pastoriza
eta Manex Aldalur.*

El 17 de junio se ha constituido la nueva Corporación municipal y, tal y como estaba previsto, Xabier Urdangarin ha sido elegido alcalde.

La nueva corporación municipal cuenta con 13 concejales: 8 de EH Bildu, 4 del PNV y 1 del PSE.

Xabier Urdangarin ha sido elegido alcalde del Ayuntamiento de Astigarraga tras obtener la mayoría absoluta en las elecciones municipales del 28 de mayo. EH Bildu obtuvo 1703 votos (51,68% de los votos) y 8 concejales (uno más que en el anterior mandato). Por su parte, el PNV obtuvo 986 votos (29,95%) y 4 concejales (uno

menos que el anterior), mientras que el PSE obtuvo 274 votos (8,32%) y 1 concejal.

La corporación está formada por 13 concejales. De ellos, 6 son con experiencia en el anterior mandato y 7 son nuevos.

Tras la sesión constitutiva, se celebrará un nuevo pleno, el 4 de julio, en el que se han adoptado acuerdos organizativos (periodicidad de la sesión, comisiones, nombramientos, delegaciones, jornadas). Una vez hecho esto, los órganos de gobierno municipales comenzarán a funcionar, como es habitual.

Xabier Urdangarin:

“Pozik eta prest gaude, lanean jarraitzeko eta Astigarraga hobetzeko”

Alkate izendatu berritan elkartu gara Xabier Urdangarinekin, agintaldi berriaz hitz egiteko.



EH Bilduk gehiengo osoa eta 8 zinegotzi lortu ditu.

Bai, gehiengo osoa lortu dugu. Hori ona da gure proposamenak aurrera ateratzeko, baina harrotu gabe, beste alderdiei botoa eman dieten edota botorik eman ez duten herritarren alkate eta udal gobernua ere bagara. Astigarragar guztiei esan nahi dizuet betebeteko ahalegina egingo dugula gauzak aurrera ateratzen. Aurreko agintaldian gardentasun eta partehartze osoz kudeatu dugu gehiengoa eta oraingoan ere horrela izango da. Nahiz eta askotan iruditu alderdiak beti mokoka aritzen garela, ez da horrela. Aurreko agintaldian erabakien ia %80 aho batez hartu dugu.

Lehen egun eta aste hauetan zertan ari zarete?

Hauteskundeek nolabaiteko eten bat dakarte, korporazio bat desegin eta hurrengo eratu behar delako, zinegotzi batzuk utzi, beste batzuk hasi... Udaltaldean taldea saretu eta sendotzen ari gara, zinegotzi berriei gaiak azaltzen, funtzionamendua antolatzen eta abar. Horrekin batera, uztaileko plenoa, tokikoa, batzordeak eta abar antolatzen ari gara eta ohiko zerbitzu eta lanak egiten. Gero Santio jaiak, opor batzuk eta berehala irailan 2024ko aurrekontuarekin hasi behar dugu. Aspertzeko betarik ez dago!

Zein da zure helburu nagusia alkate gisa?

Alkate gisa eta udaltaldeko kide gisa helburu garbi bat daukagu: Astigarragako udal zerbitzu eta ekipamendu publiko egokiak edukitzea, berehala 8.000 biztanle izango dituen herri bat dela kontuan hartuta.. Azken lau urteetan aurrerapauso handiak egin ditugu arlo horretan eta uste dut beste lau urterekin helburu hori hein handi batean lortuko dugula.

Horrekin batera, babes sozial handia eskaintzen duen herria izatea nahi dugu, eta lortzen ari gara. Etxez etxeko laguntza zerbitzua, esku-hartze psiko-sozialeko zerbitzuak familientzat eta adin txikikoentzat, larrialdiko etxebizitzak, hainbat dirulaguntza eta hobari lerro... Urrats politikak egin ditugu.

Nola inplikatuko dituzu gazteak eta belaunaldi berriak erabakiak hartzen eta udalerraren etorkizuna eraikitzen?

Astigarraga gure herria da. Ez da inor etorriko Astigarraga zaintzera eta hobetzera. Guk egin behar dugu, astigarragan bizi garenok. Astigarraga gure herria da, gure bizitokia. Zaintzen badugu, zainduko gaitu. Denok behar dugu laguntza eta zaintza, alor guztietan. Herriko gauzetan eta gaietan parte hartzea gauza ederra da. Batzuetan esker txarrekoa, baina ederra. Nik horrela ikusten dut. Gazteek esaten duten bezala, sin más.

Zer gomendio jaso dituzu zure gertuko partetik?

Amak esan dit zintzo jokatzeko. Emazteak eta semeek lanari tamaina hartzeko... Lagunek eta gertukoek animoak eman dizkirate. Egia esan esker oneko hitzak baizik ez ditut familiarentzat, ingurukoentzat eta EH Bilduko kideentzat. Eskerrik asko.

Hiru pertsona berri batu dira Udaltzaingo zerbitzura

1987. urtean, Astigarragak Donostiako auzoa izateari utzi zionean eta herri izaera hartu zuenean Astigarragako Udaltzaingoa sortu zen, hiru pertsonez osatuta.



Urteetan zehar baliabideak aldatu diren arren zereginak ez dira asko aldatu. Baliabide informatikoez asko erraztu die lana bai eta legeen aldaketak ere. Herriaren populazioa azkeneko 20 urteetan bikoiztu egin da eta hor ere aldaketa sumatu du Udaltzaingoa, askoz jende gehiago mugitzen baita herrian zehar. Egun, haien zereginen artean hurrengoak azpimarratu daitezke:

- Herritarren segurtasuna eta zaintza bermatu, polizia judicial gisa.
- Udalaren muga barruan trafiko zaintza: ikastolako sarreran lagundu, aparkaleku publikoak zaindu, istripuetan laguntza eman eta, behar denean, atestatuak bete.
- Eraikin, parke eta udaleko eraikinak zaindu.
- Ordenantzak betetzen direla zaindu.
- Hondamen kasuetan laguntza eman eta beste erakundeekin lankidetzan aritu.
- Gatazka pribatuetan bitarteko gisa laguntza eskaini.

Udaltzain zerbitzua astean zehar goizeko 6:30etatik gaueko 22:00ak arte ematen da, eta asteburuetan 9:00etatik 21:00etara (Sagardotegi denboraldian 2:00ak arte eta herriko festetan 24 orduz).

Zerbitzuari ahalik eta erantzun egokiena emateko beti bi agente egoten dira lanean eta prebentzio lanak lehenengo ordutik egiten dituzte. Zerbitzua hastean, poligonoetan indartzen dituzte patruilak, herria alde batera utzi gabe, eta egunean zehar bai oinez eta bai kotxez egiten dute ibilbidea sortzen diren eskaerei erantzuna emanez.

Hiru pertsona berri taldean

Gaur egun 6 agente, agente lehena eta ofizial ordea daude lanean eta horietatik bat, agente lehena, emakumea da. Orain hiru agente berri sartu dira. Herriaren hazkundera erantzun bat emateko udalak udaltzaingoaren birmoldaketa prozesu bati ekin zion.

Ofizialorde, agente lehena eta hiru agenteen oposaketak egin dira azken hiruzpalau urteetan. Honekin Udaltzaingoa behar zuen egonkortasuna bilatu da, bai eta eskaera berriei aurre egitea ere.

Tres nuevas personas se suman al servicio de la Policía Municipal

La Policía Municipal de Astigarraga se encarga, entre otras cosas, de garantizar la seguridad y vigilancia ciudadana, la vigilancia del tráfico dentro del límite municipal, la conservación de edificios, parques y edificios municipales o de velar por el cumplimiento de las ordenanzas. El servicio se presta de 6:30 a 22:00 horas entre semana y de 9:00 a 21:00 horas los fines de semana (en temporada de sidrerías hasta las 2:00 y en fiestas durante las 24 horas).

Actualmente se han incorporado tres nuevos agentes al cuerpo. Se han realizado oposiciones de suboficiales, agente primero y tres agentes en los últimos tres o cuatro años. Con esto se ha buscado la estabilidad que necesitaba la Guardia Municipal, así como hacer frente a las nuevas demandas.

Legealdi berriaren erronkak: nahi dugun etorkizuna eraikitzen

Oraingo honetan, gure gizartearen etorkizunerako funtsezkoa den gai batean murgilduko gara: legegintzaldi berriaren erronkak. Aro politiko berri bat hasten den heinean, arreta arduratsua eta azterketa sakona eskatzen duten erronkak eta itxaropenak sortzen dira. Atal honetan, legegintzaldi berriak dituen zailtasunak eta aukerak aztertu dira, eta erronka horiek zeintzuk dira eta nola heldu azaldu du alderdi bakoitzak.

Xabier Urdangarin

EHBildu

ERRONKA UGARI ETA POLITAK DITUGU HURRENGO LAU URTEOTARAKO.

Erronka nagusia ondo bizitzeko herria eta zainduko gaituen herria egitea da, herriko elkarteekin eta herritarrekin elkarlanean. Gure iparra da Astigarraga euskalduna, berdinzalea, anitza, babes sozial handikoa, bizia...

Ekipamenduen arloan agintaldi oparoa izango da hau: herri eskola handitzeko obrak uztailean hasiko dira, DBHko ikastetxearen proiektua idazteko lanak martxan daude eta hiruzpalau urte barru ikastetxea eraikitzen ikusiko dugu. Aldiriko trenaren geltokia bi urte barru amaituta egongo da ziurrenik...

Lehendik datozen proiektuez gain beste asko ditugu mahai gainean: anbulatorio berria Bidebitarteko kantxetan, hiritartze lanak hainbat auzotan (Anuska, Sagardotegi zearra, Santiomendi...), kiroldegia berritzeko lehen fasea, energia arloko ekimenak (baratze fotovoltaikoa, energia bulegoa...).

Horiekin guztiekin batera, bi ekipamendu azpimarratu nahi ditut bereziki, etorkizunerako duten garrantziarengatik: kultur etxe zaharra gazteen elkargune izateko proiektua eta Urumea Berriko lokala (765 m²-koa) adineko pertsonentzako zerbitzuentzat prestatzeko proiektua. Ekipamendu horiek nolakoak izango diren zuekin aztertu eta erabakiko dugu, gazteekin eta adineko pertsonekin eta zuen elkarrekin. Horrela egin dugu beste obra eta proiektuekin ere (Emakumeon plaza eta Emakumeon Etxearekin edota haurreskola berriarekin) eta horrela izan behar du, gure herrian zer egin eta nola egin elkarrekin landu behar dugulako.

Duela lau urte asmo hutsak zirenak hortxe ditugu, eginda. Gaur asmo eta amets direnak hortxe izango ditugu gauzatura.

Galtza bete lan, eta galtza bete ilusio eta gogo ekiteko!

Patxi Suarez

PSE-EE

Maiatzaren 28an Udal Hauteskundeak ospatu genituen, proposamen guztiak jasotzeko eta hautagaiak ezagutzeko aukera izan genuen, eta zein programa edo zein alderdik gehien konbentzitzen gaituen pentsatu ondoren gure botoa emateko eskubidea ere erabili genuen.

Egun, aldiz, ez daude paneletan hauteskundeetarako kartelak, eta gure buzoietan ere ez dago propagandarik. Orain alderdi politikoei gure eginkizunak betetzea egokitiko zaigu. Noski, EH-BILDUri ardura altuena dagokio, Astigarragan Udal Hauteskundeak irabazi baitzituen, nahiz eta gehiengo osoa lortzeagatik ez dioen herritarrek entzun edo akordioak lortzeari utzi behar.

Honen harira, Astigarragak duen erronka nagusiaz hitz egin nahiko genuke, ezin baitugu gehiengo osoarekin bizilagunok ditugun arazoak konpondu, ez bada adostasunen bitartez; izan ere, herriak hemendik 10 edo 15 urtera baioko digun proiektua behar du.

Gure aburuz, ziur aski askok horrela pentsatzen dugu, Astigarragak udalerrri independentea eratu ondoren izugarriko hazkundea izan du. Herriak ezin die ia 8.000 biztanleei merezi dituzten zerbitzu publikoak eskaini, ezta merkataritza mailan ere. Ondorioz, Astigarragako herritarrok askotan beste udalerrri batera joan behar dugu gure beharrak betetzera.

Uste dugu erronka nagusia Astigarraga erdian jartzea dela, Astigarraga burujabea nahi dugu, eta ezin gara burujabeak izan, herrian gure bizitza osoa garatzeko aukera ez badugu; horretarako herri mailan, baita instituzio guztiekin ere, akordiotara iritsi behar dugu, osasun zentroa handitzeko, DBH azkenean jartzeko, LH eguneratzeko, aldiriko tren izateko, edo herri gero eta seguruagoan bizitzeko.

Hori guztia dela eta, Astigarragak merezi duena lortzeko eragile guztiekin elkarlanean aritu behar da, eta guk jadanik lan-ildo horri ekin diogu.

Ekainak 28

LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

LGTBIQ+ kolektiboa: Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual, Intersexual, Queer eta aurrekoetan kabidarik ez duten (+) pertsonak osatzen duten kolektiboa

Ekainak 9 ostirala

17:30 | Gaztelekuan

Trans esperientzia.

LGTBIQ+ kolektiboko Izei Etxeberriarekin solasaldia.

Ekainak 27 asteartea

18:00 | Erriberako erakusketa-gelan

Mahai-ingurua:

Trans legea eta errealitate anitzak.

Jendartean eztabaida sortu duen Trans legearen lorpenak, gabeziak eta erronkei buruz arituko dira LGTBIQ+ kolektiboko hainbat kide. Euren bizipenak kontatuz genero-identitate eta orientazio sexual aniztetera gerturatuko gaituzte.

Moderatzailea: Izei Etxeberria.

Partaideak: Josebe Iturrioz, Loratuz Lotuzetik Bryan Altimasberes eta Asmi Molina.

Ekainak 28 asteazkena

10:30 | Gaztelekuan

LGTBIQ+ murala

Ekainak 30 ostirala




19:00 | Erriberako terrazan

Zghedapena, film laburren emanaldia.

Doan eta jatorrizko azpitoluluekin.

Bilboko Zinegoak, LGTBIQ+, 20. nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdiko honako film laburrak eskainiko dira:

1. **Irrits** (Euskadi)
2. **Warsha** (Libano-Frantzia)
3. **Arnasa** (Euskadi)
4. **Dating internet strangers** (Brasil)
5. **Son** (Espainia)
6. **Ezohikoak** (Euskadi)
7. **It's a gray, gray world** (Iran)



Astigarragako Udala

Foru Enparantza 13
20115 Astigarraga
Tel: 943 335050
udala@astigarraga.eus
www.astigarraga.eus

